

FARMAZIA LAGUNKOIA

Farmazialari estimatua:

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak abian jarritako "Euskadi Lagunkoia" ekimenaren barne, **ekainaren 22tik 26ra** egingo den **Farmazia Lagunkoien Astean** parte hartzea gonbidatu nahi zaituztegu.

Kanpaina honen helburua farmaziei **eragile komunitario gisa balioa eman eta ikusaraztea da, zahartzen ari den gizarte honetan**; izan ere, farmazien zeregina funtsezkoa da pertsona guztien eta, batez ere, adinekoen autonomia eta bizi-kalitatea mantentzeko. Egun hauetan frogatu den bezala, COVID-19ren ondoriozko osasun-krisiak eragindako alarma-egoeran izan duzuen funtsezko babesa dela eta.

NOLA PARTE HARTU:

Kanpaina hau, eguneroko bizitzan egiten dituzuen eta **lagunkoia diren jardunbide onak** bideoen, argazkien edo sare sozialetako istorioen bidez partekatzean datza.

Jardunbide egoki horiek honako hauek izan daitezke: esertzeko aulki bat izatea, farmazietan jartzen diren karteletan letra-tamaina egokiak erabiltzea, farmaziara joaten diren pertsonekin konfiantzazko harremanak edukitzea, programa komunitarioetan parte hartzea, farmazia-zerbitzu asistentzialak eskaintzea, ahultasun-egoeren antena gisa jardutea, farmaziako beste baliabide batzuei edo beste eragile komunitario batzuei buruzko informazioa partekatzea (pazienteen elkarteak, etab.)... Jardunbide egoki lagunkoien adibide dira, halaber, COVID-19ren ondoriozko krisi sanitarioan egindako ekintzak, hala nola neurri higienikoei buruzko hezkuntza sanitarioa edo maskaren erabilera egokiaren azalpena, besteak beste. Azken batean, gizarte-eragile handi bihurtzen zaituzten alderdi horiek guztiak.

Ezingo da inola ere produktu espezifikorik sustatu, beraz, kanpainatik kanpo geratuko da produktu jakin batzuei egiten zaien edozein publizitate.

Nola parte hartu?

- Zuen farmaziak **sare sozialak baditu** (Facebook, Twitter, Instagram), argazkia, bideoa edo historia partekatu dezakezue **#farmazialagunkoia** traola erabiliz ekainaren 22tik 26ra bitarteko astean.
- Sarerik ez baduzu, zuen argazkia edo bideoa bidali dezakezue **prentsa@euskadilagunkoia.net** helbidera edo **WhatsApp** bidez 659188046 zenbakira ekainaren 22a baino lehen, eta Euskadi Lagunkoia sareetan partekatuko dugu ekainaren 22tik 26ra bitarteko astean.

Kanpaina zuen erabiltzaileei zabaltzera animatzen zaituztegu, haiek ere gure erkidegoko farmazien balioa sareetan partekatu ahal izan dezaten. Haien istorioak, bideoak edo argazkiak aipatutako hashtagarekin erabiliz igota.

Gainera, **kanpainaren kartela zuen farmazietan jartzera** gonbidatzen zaituztegu, kanpaina amaitu arte, pertsona gehiagorengana iritsi ahal izateko.

Eman diezaiozun balioa farmazia lagunkoiek zahartzen ari den gizarteari egiten dioten ekarpenari!

Edozein zalantza izanez gero edo informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943.224.643 telefonora edo idatzi info@euskadilagunkoia.net helbidera.